



TA21EKO BEHATOKIA  
OBSERVATORIO AL 21  
GIPUZKOA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

LAGUNTZA TEKNIKOAK: MINUARTIA ENEA

# Zarauzko Udala TOKIKO AGENDA 21

## Iraunkortasunaren Tokiko Ekintza Plana 2012ko emaitzak

TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANEN  
EBALUAZIO ZERBITZUA



Dokumentu honek **udalerrri gipuzkoarretan 2012ko TA21eko Tokiko Ekintza Planaren ezarpen-mailaren ebaluazioa egiteko laguntza Zerbitzuan** udaletxe honen parte hartzetik abiatuta sortu diren emaitzak adierazten ditu.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** zerbitzu hau 2005.urteaz geroztik bultzatzen du. **Udalsarea 21eko** kide diren udalerriei zuzenduta dago zerbitzua eta Sareko udalerrri guztiek partekatzen duten metodologia komun batean oinarritzen da.

Zerbitzu honen helburua **politika publikoen eraginkortasunean** oinarritutako **Gobernantza** eredu bat lortzeko laguntza ematea da. Honekin, udalerrietako Tokiko Agendak bizi kalitate hobegoko komunitateak lortzeko, giza eta ekonomi garapen iraunkorra lortzeko eta gure inguruaren zainketa eta errespetua lortzeko instrumentu izatea nahi da.

Txosten honek zera aurkezten du:

- **Ekintza Planaren gauzatze mailaren** emaitza orokorrak.
- Planaren ezartzea bermatzen duen **Udaletxeko barne-koordinazioarako mekanismoaren** funtzionamendu eta ezaugarriak.
- Herritarren ikuspegia planean barneratzea bermatzen duen **herritarren parte-hartze mekanismoaren** funtzionamendu eta ezaugarriak

Zerbitzuaren azken argitalpen honetan Gipuzkoako 43 udalerririk hartu dute parte 2012.urtean beraien ekintza planen gauzatzea ebaluatzen

Zerbitzuari buruzko informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumena/eu/secciones/observatorio/gipuzkoa/koiraunkortasunarenbehatokia.asp>



# ERABILITAKO METODOLOGIA

Planaren ezarpenaren balorazio kualitatiboa egiteko udalaz kanpoko ebaluazio talde batek **Udalsarea 21**eko udalerrietan komuna den Gida metodologikoaren arabera EKINTZA ETA URTE BAKOITZERAKO GAUZATZE EGOERA bat jartzen du,


<b>(H)</b>	Hasteko: 0
<b>(Ha)</b>	Hasita: 0,25
<b>(Au)</b>	Aurreratua: 0,50
<b>(Am)</b>	Amaitzen: 0,75
<b>(At)</b>	Amaituta: 1



**Mugi 21** Euskadin Tokiko Agenda 21 kudeatzeko diseinatu den aplikazio informatikoak ekintza bakoitzari zenbakizko balore bat esleitzen die Planean dauden ekintza guztien erlazioan eta emaitzak **ezarpen-portzentai** moduan ematen ditu.

## Inplikaturako eragileak

Ekintza Planaren gauzatzean inplikaturako politiko edota teknikari arduradunak, udaleko gaitasun traspasatuak dauzkaten udal enpresak edo eskualdeko entitateak



## Prozesuaren arduraduna (eta TA21-ena)

TA21-en prozesuaren udal arduraduna




## Ebaluatzaile taldea

Programaren esparruan GFAk izendatu duen taldea, prozesuaren ebaluaketarako ahalmen espezifikoekin. Izan ere, bere gaitasunak ebaluaketarako irizpide homogeneoak ziurtatzen ditu baita prozesuaren aplikazioa orokorrean ere.



# PLANAREN EZAUGARRIAK

Planeko ekintza kopurua: 139  
Izaera jarraia duten planeko ekintzen portzentajea: %34  
Planean parte hartzen duten eragileen kopurua: 14



GRAFIKOA: Gipuzkoako udalerrietako  
2011ko batez besteko datuak.  
ITURRIA:GFA

Planeko ekintza kopurua: 139  
Izaera jarraia duten planeko ekintzen portzentaia: % 34  
Planean parte hartzen duten eragileen kopurua: 14

#### PLANEKO EKINTZA KOPURUA

**Lurraldeko batez besteko balorearekin alderatuz ekintza kopurua** baxuagoa da, aldagai hau ez dago identifikatuta planaren kalitate adierazle moduan, baina bai ordea kontsideratzen da Euskadiko plan batzuk beren ezarpen bideragarritasunerako handiegiak direla eta beste batzuk aldiz, mugatuak direnez oso zail egin ditzakete joera aldaketak.

Planen berrikuspen metodologiaren arabera, 15.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan ekintza kopuru egokia 70 eta 150 artean egongo litzateke.

#### PLANEAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN KOPURUA



**Parte hartzen duten eragileen kopurua**, hau da, planaren ezarpenean esku hartzen duten udal-arduradunen kopurua, Lurraldeko batez besteko balorearekin alderatuz baita EAEkoekin ere baxuagoa da.





# PLANAREN GAUZATZE- MAILAREN EMAITZAK

# Planaren gauzatze-maila orokorra 2012ko abendura arte



**GRAFIKOA:** Planen batez besteko gauzatze-mailaren bilakaera helburuarekiko.

ITURRIA:GFA

# Balorazioa

Gipuzkoa mailan urtekako batez besteko eta helburuko gauzatze-mailen baloreak gure planaren gauzatze-mailaren emaitzekin alderatuz, zera beha daiteke:



## LORTUTAKO EZARTZE-MAILA

**Planaren ezartze-maila moderatua** da, **bere 4. ezarpen urtean % 45** lortu duelarik. Hau Udalsarea 21eko udalerrien ekintza planentzako ezarrita dauden helburu komunetatik gertu dago (%49,5).




## EZARTZE MAILAREN JOERA


**Gauzatze erritmoa**, helburuko hazkundearekin konparatuta **altua** da. Kasu honetan, ebaluatutako azken urteko hazkuntza **% 11** izan da.



## EZARTZE-MAILA BATEZ BESTEKO DATUEKIN ALDERATUZ


Planaren gauzatze-maila Gipuzkoako batez besteko baloreekin konparatuz, udalerriak batez bestekoarekiko gauzatze-maila altuagoa daukala beha daiteke. 4. ezarpen urtean, udalerriak **% 45ko gauzatze-maila** lortu du eta denbora berdinean lurraldeko **udalerrien batez bestekoa % 40,8** da. EAEko batez besteko datuen arabera balorazioa antzekoa da.





2012eko abenduan planeko ekintzen garapen-maila aztertuz zera ikus daiteke:

2011ean ekintzen gauzatze egoera



## Balorazioa



### LORTUTAKO EKINTZEN GARAPEN-MAILA ETA ETORIKIZUNERAKO IKUSPEGIA

Adierazgarria da ebaluatutako azken urterako, **amaituta, amaitzen eta aurreratuta dauden ekintzen batura % 66** izatea, Planaren bi herena osatzen duelarik. Zirkunstantzia hau eta ekintzen % 92 jada **2012an hasita moduan aurkitzen direla** kontutan hartuz, aurreikusi daiteke hurrengo urtean orain arteko **hazkunde erritmoa mantendu daitekeela**, gutxienez azken urte honetako antzekoan.




# **TOKIKO AGENDA 21EAN UDALAREN BARNE- KOORDINAZIOA**

Zarauzko udalak barne koordinazioarako mekanismo egonkor bat du, Tokiko Agenda 21 eta Hirritarren Parte-Hartze Batzordea. Organo hau, gutxienez hilabetean behin biltzen da tokiko iraunkortasunaren inguruko gaiak jorratzeko, Tokiko Agenda 21eko eremuan.

Gainera, 2011. urtetik, Herritar Parte-Hartze eta Tokiko Agenda 21eko sailak departamentu arteko koordinazio komisia koordinatu, antolatu eta dinamizatzen du. Komisia honetan udal sail guztietako arduradun teknikoak hilean behin bi orduz biltzen dira beraien ardurapean dauden ekintzak koordinatu eta ezagutarazteko. Hau politika publikoen zeharkakotasunaren aldeko aurrerapauso nabarmen bezala baloratu egiten da.

### Gipuzkoan barne-koordinazio mekanismoaren existentzia eta kalitatea



ITURRIA:GFA

### Balorazioa






# **TOKIKO AGENDA 21EAN HERRITARREN PARTE HARTZEA**



Zarautzen, Tokiko Agenda 21ari lotutako parte-hartze foro egonkor bat dago. Foro honetan informazioa emateaz gain, gaiak eztabaidatzen eta lantzen dira eta proposamenak adosten dira.

2012an zehar 16 aldiz bildu da gai ezberdinen inguruan: Agenda 21 jardueraren baitan burutzen diren ekintza desberdinak informatzeko, mugikortasunari buruz hitz egiteko eta adostasunak bilatzeko, udal aurrekontuak,...

### Gipuzkoan TA21aren gaian herritarren parte hartze mekanismoak



ITURRIA:GFA

### Balorazioa

EXISTENTZIA



DINAMISMOA




Zarauzko parte hartze mekanismoan 20 pertsona baino gehiagok parte hartzen dute, aurreko urtearekin konparatuz, 2012an parte hartu dutenen kopurua gehitu egin delarik.

Bestalde, eztabaidarako eta proposamenak jasotzeko eremu bat dela positibotzat jotzen da. 2012an Eskola Agenda 21eko 10. urteurrenaren eremuan, Ekintza Planaren inguruko informazioa aurkeztu zen. Hala ere, komenigarria izango litzateke urtero herritarrei Ekintza Planaren ezartze-mailaren emaitzen berri ematea eta herritarrek honen kudeaketan protagonismo handiagoa izatea.

### Gipuzkoan TA21aren gaian herritarren parte hartze mekanismoak

Foroko parte-hartze saio bakoitzeko batz besteko parte-hartzaile kopurua



Azken urteko Foro bileren esparruan ondorengo lanak egin dira (erantzun anizkoitza)



ITURRIA:GFA

## Balorazioa

HEDADURA



PROTAGONISMOA  
PLANEAN





# PLANAREN EGUNERATZEA

Udalsarea 21eko Ekintza Plana kudeatzeko ereduak MUGI 21aren bidez **Plana EGUNERATZEA** baimentzen du. Ezarpen-mailaren ebaluaketarako burutzen den azterketatik (edo beste azterketa sistemaren bat) abiatuz egiten da eguneratzea.

Planaren eguneratzeak ez ditu Planaren filosofi orokorrean aldaketa askorik suposatzen, baina bai onartzen du:

- EKINTZA PLANEAN KONTUAN HARTU GABEKO EKINTZAK identifikatzea, hauek burutzen ari dira eta planarekin koherenteak dira.
- BIRFORMULATU daitezkeen ekintzak identifikatzea, ekintza hauek burutzen ari dira baina ez du zehazki hasierako definizioa betetzen.
- BIKOIZTUTAKO ekintzak identifikatzea.

Ondoren, **gure Plana eguneratzeko proposamenak** azaltzen dira.

## BIRFORMULATUTAKO EKINTZEN ZERRENDA

Ekintza	Epea	Lehentasuna
A 4.3.2 Ingurune naturalaren balioak eta horien zaintza egokia egiteko jarraibideak dibulgatzeko kanpainak egin.	Ertaina	Ertaina



TA21EKO BEHATOKIA  
OBSERVATORIO AL 21  
GIPUZKOA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio